



BIZIKLIK!

Balio proposamena



Zer behar edo arazo konpontzen dugu?

Gaur egun klima aldaketa gero eta arazo larriagoa bilakatzen ari da eskala globalean. Horri aurre egiteko, ezinbestekoa da energia-iturri berriztagarri eta garbiak erabiltzea. Hori lortzeko xedez, “Biziklik!” izeneko enpresa gauzatu dugu. Gure enpresak elektrizitatea sortzen duten bizikleta estatikoak eta eliptikoak ekoiztuko ditu. Hauei esker, kiroldegietako argindarra era jasangarrian eta dohainik lor liteke. Gainera, udal kiroldegiek guk sortutako tresnak instalatuz gero, lortutako energia hori beste zenbait helburutarako erabil liteke, udalerrria etorkizun jasangarri batera bideratuz.

Zerk bereizten gaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa guri ordaintzeko prest?

Guri esker, kiroldegiek beren elektrizitatea sortzeko ahalmena izango dute, era errazean eta energia garbia erabiliz. Etorkizunera begira, dirua aurrezteaz gain, klima aldaketak sorraraziko dituen arazoak ekiditen lagunduko duen aurrerapen teknologikoa izango litzateke. Arrakastatsua izanez gero, klima aldaketari aurre egiteko urrats izugarria izan liteke.

Gure balioa kualitatiboa da, diseinuak garrantzi handia baitu guretzat. Diseinua erosoan izan behar du, segurtasun handikoa erabiltzaile eta elektrizitatea garatzeko baliabideentzat. Gainera, gure produktua kalitate handiko materialez eginda egongo da, eta diseinu seguru eta eroso hori lortzeko asmoz, Donostialdeako kiroldegietan bizikleta erabiltzen duten pertsonen artean inkesta bat egingo dugu, bezeroaren beharrak ezagutzeko xedez.

Arrazoizko prezio bat ezarriko dugu (350 €-ko prezioa gainditu gabe) ekoizpen-kostuen arabera, baina, gure helburu nagusia bezeroaren beharrak betetzea da, eta horrek beste enpresengandik desberdintzen gaitu, asko interes ekonomikoen arabera gidatzen baitira.